

## AJANGIZKO LEZIA

*Aita Francisco Gandariasek komunikatuta 1921an*

Ajangizko udalerrian badago *Lezia* deituriko putzua edo iturria.

Gaur egun putzua dagoen tokian garai baten, jai egun baten, baserritar bat goldan zegoen.

Bat-batean lurra ireki egin zen.

Golda, behi bikotea eta bera zurgatu egin zituen lurrak.

Bere hondarrak, beranduago, itsasoan agertu ziren.

Ordutik, haurrak beldur handiz igarotzen dira leku horretatik.



Ajangiz udalerriak, oraindik ere, ipuinak eta kondairak sortzeko beharrezko nekazal-giroa erakusten du.

**Joxe Miel Barandiaran**

Obras Completas Tomo II

Eusko-Folklore

Editorial La Gran Enciclopedia Vasca

Bilbao, 1973